



Jardun biko enpresa, enpresa- kudeaketarako paradigma berria



Uzt. 08 2022

Kod. E10-22

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2022

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 08 2022

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Gipuzkoak salbuespenezko egoera jasan du osasun, gizarte eta ekonomia arloetan, covid19aren pandemiaren ondorioz. Krisi horrek agerian utzi du Gipuzkoako ekonomiaren oinarri sozial eta ekonomikoak eraldatzeko prozesua gauzatzeko beharra, etorkizuneko ekonomiaren lehiakortasun erronketara egokitzeke.

«Jardun biko enpresak» terminoak erreferentzia egiten die krisialdiei estrategia birsortzaileak garatuz aurre egiten dieten antolakundeei, aldi berean bai ustiapen jarduerak, egungo produktuei, merkatuei eta negozioei etekina ateraz, bai esplorazioa, ekintzailatza eta beren etorkizuna eraikitzeke negozio aukera berrien bilaketa areagotuz, gauzatzen dituztenei.

Zenbait azterlan enpirikok antzeko ondorioak atera dituzte enpresen emaitzak kudeaketan duten orientazioaren arabera aztertzean: epe luzera, jardun biko enpresek erraz gainditzen dituzte epe laburreko orientazioa duten enpresak, bai hazkundeari dagokionez, bai errentagarritasunari dagokionez.

Ondorioz, «Oraina eta Geroa Uztartuz» proiektuak, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Suspertze Ekonomiko eta Sozialeko Planaren barruan, Jardun biko Enpresarentzako Erreferentzia Esparruaren garapena eta hedapena lantzen du

Helburuak

Arteak Jardun biko Kudeaketaren eremuan duen egoera aztertzea, bai ikerketa akademikoaren ikuspegitik, bai enpresa kudeaketan duen aplikazio praktikoaren ikuspegitik

Gipuzkoan Jardun biko Enpresarentzako Erreferentzia Esparruaren ezarreran aurreratuta dauden enpresen esperientzia aitzindariak ezagutaraztea

Jardun biko Kudeaketaren paradigmaren sozializazioa areagotzea, gero eta hedapen handiagoa izan dezan Gipuzkoako enpresetan

Gipuzkoa Jardun biko Enpresaren paradigmarekin lotutako nazioarteko sareetan sartzea

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2022-07-08

08:30 - 09:00	Erregistroa / Registro
09:00 - 09:10	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Iker Estensoro Sarasola Diputación Foral de Gipuzkoa - Director general
09:10 - 09:30	““Oraina eta Geroa Uztartuz” proiektuaren aurkezpena / Presentación del proyecto “Oraina eta geroa uztartuz” Mikel Orobengoa Ortubai ISEA S. COOP. - Director gerente
09:30 - 10:15	“Akzio balioaren maximizazioa eta horrek empresa kudeaketan duen eragina / La maximización del valor accionario y su impacto en la gestión empresarial” Marie Carpenter Vicepresidenta de The Academic-Industry Research Network—theAIRnet. - Profesora de Estrategia en el Institut Mines-Télécom Business School
10:15 - 11:00	“Nola konpondu eraldaketaren erronka bikoitza: oraina kudeatzea eta etorkizuna sortzea / Cómo resolver el doble reto de la transformación: Gestionar el presente y crear el futuro” Mark Greeven Institute for Management Development - Profesor de Innovación y Estrategia (Zoom bidez parte hartuko du)
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:15	““Gaurko eta biharko kudeaketaren erronkak, dilemak eta lehiak” / Retos, dilemas y desafíos de la gestión ambidiestra” Marcos Urarte Profesor invitado de las principales Escuelas de Negocio a nivel internacional - Socio Presidente de PHAROS
12:15 - 13:00	“Gipuzkoako Gaurko eta Biharko Enpresarentzako Erreferentzia Esparruko aplikazio kasuak / Casos de aplicación del Marco de Referencia para la Empresa Ambidiestra en Gipuzkoa” Directivos de Empresas Guipuzkoanas Gipuzkoako enpresetako zuzendariak - Directivos/as Empresas guipuzcoanas
13:00 - 13:10	Itxiera Iker Estensoro Sarasola Diputación Foral de Gipuzkoa - Director general

Zuzendaritza



Iker Estensoro Sarasola

Gipuzkoako Foru Aldundia, Director de Promoción Económica, Departamento de Promoción económica, Turismo y Medio Rural

Iker Estensorok Industria Antolakuntzan Ingenieria da Mondragon Unibertsitatean eta Management of Competitive Manufacturing Masterra dauka University of Strathclyden. Bere ibilbide profesionala IK4 IKERLAN-en hasi zuen teknikari gisa, baina bere karrera profesionala ORKLI S.Coop.-an garatu du, bertan kalitateko arduradun modura hasi eta produkzio arduradun izatera pasa zelarik. 2009 urtea geroztik ORKLiko Key Account Manager izan da. Azken bi urteotan ORKLiko lehendakaria izan da, kargu hau beste erakunde batzuetako lehendakari eta kontseilu errektoreko ordezkartzarekin partekatu duelarik; ala nola IK4 Lortek, Mondragon Componentes, Goierri Goi Maila Eskola, Goilan Fundazioa, San Benito Ikastola eta ACEDE elkarteak. Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Eremuko, Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusi da.

Irakasleak



Marie Carpenter

Marie Carpenter estrategia irakaslea da Parisko Institut Mines-Telecom Business School institutuan. Dublin City University-ko doktorea da, eta EHESko doktoretza du. Marie Carpenter The Academic-Industry Research Network—theAIRnet erakundeko presidenteordea da. Irabazi asmorik gabeko erakunde horrek industria berrikuntzarekin eta garapen ekonomikoarekin lotutako gaiak ikertzen ditu. Marie Carpenterrek azterlan sektorialak egiten ditu, goi-mailako teknologiako industrietako berrikuntza prozesuak ulertzeko. 2022ko Enpresa Historiaren Konferentzian, Trescott Sarirako izendatu zuten, enpresa historiaren eta teknologiaren historiaren elkargunean egindako lan onenari dagokion atalean. Bere lanak frantsesez eta ingelesez argitaratu dira kudeaketako nazioarteko aldizkarietan, hala nola Harvard Business Review aldizkarian.



Directivos de Empresas Guipuzkoanas



Mark Greeven

Berrikuntza eta Estrategiako irakaslea International Institute for Management Development-IMD Institutuan (Lausana eta Singapur). Rotterdameko Erasmus Unibertsitatean doktoratu zen (Rotterdam School of Management). IMDn sartu aurretik, irakasle aritu zen Zhejiangeko Unibertsitatean (Txina) eta Rotterdam School of Management delakoan (Holanda). Mark ikertzaile elkartua da Txinako Berrikuntzaren Kudeaketarako Institutu Nazionalan, Txinarako eta Globalizaziorako Zentroan eta I+G eta Berrikuntza globalerako Zentroan. Bere ikerketaren emaitzak nazioarteko aldizkari akademikoetan agertu dira, hala nola Harvard Business Review, MIT Sloan Management Review, European Management Journal eta Asia-Pacific Journal of Management, eta baita mundu mailako komunikabideetan ere, besteak beste, Forbes, The Financial Times, CNN, eta Bloomberg aldizkarietan. Mark Greeven 2017 Thinkers50 zerrendan ageri da, zeina hurrengo belaunaldiko 30 pentsalari enpresarialen radarra baita, eta Financial Timesen arabera, enpresa pentsamenduaren Óscar saritzat har daitezke.



Mikel Orobengoa Ortubai

ISEA S.COOP.

Zientzia Fisikoetako lizentziatura ikasi zuen Tolosako Paul Sabatier Unibertsitatean (Frantzia), eta Zientzia Fisikoetako doktoregoa, automatikako espezialitatean, CNRSko LAAS laborategian (Tolosa). LKS CONSULTORES enpresako Prozesuen eta Teknologiaren arloko zuzendaria eta LKS S COOP enpresako I+Gko zuzendaria izan da, eta erakunde publiko eta pribatuen kudeaketari buruzko ikerketa-proiektuen buru izan da. Gaur egun, ISEA S COOP MONDRAGON Korporazioko Ingeniaritza eta Zerbitzuen Dibisioko Garapen Teknologikoko, Berrikuntzako eta Ekintzailatzako Zentroko zuzendari kudeatzailea da.



Marcos Urarte

Industria ingeniaria Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan eta Sistema-ingeniaria Fujitsu Limitedeko Unibertsitatean, Tokion (Japonia). Negozio eskola nagusietako irakasle gonbidatua. Nabarmentzekoak dira Massachusetts Institute of Technology (MIT); Singapurreko Unibertsitate Nazionala (NUS), Asiako unibertsitaterik onena; eta "Oxford Scenarios Planning Approach" programa ospetsua. Harvardek argitaratutako azterlan batean, aipamen hau egiten da: "Urarte irakasleak, azken ikerketetan, azken bost urteetako enpresen munduari buruzko ideia berritzaile, fresko eta disruptiboenak aurkezten ditu, eta horrek ezinbesteko erreferente bihurtzen du gertatzen ari dena eta gertatuko den ulertzeko". FORBES aldizkariak, 2021eko ekainean, Espainiako "futurista" nagusietako bat dela adierazi du. IFTFko kidea (Institute for the Future). Erromako Klubeko, Erresuma Batuko "International Institute for Strategic Studies (IISS)" institutuko eta Elcano Institutuko Think Tank taldeetako kide da. Aholkulari estrategiko eta antolatzailea da Espainiako eta Latinoamerikako 100 erakunde publiko eta pribatu baino gehiagotan. Zenbait konpainia ospetsutako aholkulari eta administrazio kontseilutan parte hartzen du, kontseilari independente gisa.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2022-07-08 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2022-07-08 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa